

"EHU TALDEA" MARKA

"EHU taldea" marka erabiliko da EHU taldea osatzen duten erakundearen markarekin batera. Biak batera erabili arren, "EHU taldea" markak ez du ezereztuko, estaliko edo kaltetuko inola ere ez erakundearen marka. Ahalik eta ondoen txertatuko da marka logotipo nagusian, ondo uztartuta gera daitezen biak.

Imagoa

UPV/EHUren logotipoa hartuta, irudi horren negatiboa egin eta lauki batean sartu da, unibertsitatekoak ez diren elementuak irudikatzeko modu horretara.

Logotipoa

UPV/EHUren Erakunde Irudiaren Eskuliburuko tipografia erabili da. Logotipoa osatzen duten bi hitzak lodiera desberdinaren bidez bereizi dira. Ez da erabili bestelako elementu tipografikorik, logotipoa irakurgarria izan dadin neurri txikienetan ere.

Marka

Imagoa eta EHU hitza elkarren ondoan jarriko dira, elementua erraz identifikatu ahal izateko, baita neurri txikienetan ere. Logotipoaren imagoa "kokatuko" da, bai eta horrekin batera joango diren marken marka ere. Imago/logotipoaren antolamendu hori bakarra da, eta ezin da aldatu.

Neurria

Neurria izango da beste markarenaren % 20 eta % 25 artekoa. Ahalegina egingo da bi marken artean nolabaiteko lotura grafikoa egon dadin.

Kokalekua

Beste markaren eskuinaldean ipiniko da, behean. Azpian jarriz gero, eskuin aldean lerrokatuko dira marka biak.

Beste markaren formak zaildu egiten badu "EHU taldea" marka esan bezala kokatzea, salbuespena egingo da eta diseinatzaileak erabakiko du nola jarri.

grupo**ehu** 

grupo
ehu 

ehutaldea 

ehu
taldea 

ehugroup 

ehu
group 

grupo**ehu** 

grupo
ehu 

ehutaldea 

ehu
taldea 

ehugroup 

ehu
group 

TAMAÑOS MÍNIMOS Y ZONA DE PROTECCIÓN
TAMAINA TXIKIENAK ETA BABES EREMUA

ehugroup  3mm

ehu  group 4mm



EJEMPLOS DE CONVIVENCIA
BIZIKIDETASUN ADIBIDEAK

spinoff
grupo **ehu** 

Spin-off
ehutaldea 

BE
RC
ehu
group 

BERC
ehu
taldea 